

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2632

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Erregimen Bereziko Hizkuntza Ikasketak ebaluatu eta egiaztatzea arautzeko dena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren VII. Kapitulu osoa hizkuntzen irakaskuntzei buruzkoa da; eta bere 59., 60., 61. eta 62. artikuluetan honako hauek arautzen dira: helburuak, sartzeko sistemak, irakaskuntza haiek ematen dituzten ikastetxeen ezaugarriak, egiaztapen-frogagiriak eta korrespondentziak; horretaz gain, hiru mailatan antolatzen ditu: oinarrizkoa, bitartekoa eta aurreratua.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak erregimen bereziko hizkuntza-ikasketak arautzen ditu. Bada, geroztik, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bitartez, aipatu ikasketon curriculumeko oinarrizko mailaren betekizunak ezarri ziren, zertarako-eta egiaztapenak egiteko, eta, bestalde, bitarteko mailari eta maila aurreratuari dagokienez gutxieneko mailak ezarri ziren. Halaber, aipatu ikasketen oinarrizko eta bitarteko maila eta maila aurreratua gainditu izana kreditatzeko ziurtagirien ondorioak ezarri zituen; eta ikasleen mugikortasuna bermatzeko dokumentazio akademiko beharrezkoaren gutxieneko betekizunak zehaztu zituen.

Bestalde, bitarteko mailako eta maila aurreratuko ikasketak ebaluatzeko erabili behar diren dokumentu ofizialen ezaugarriak finkatu zituen, eta dokumentuok honako hauek dira: espediente akademikoa eta kalifikazio-aktak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan honako dekretu hau eman zen: 46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, zeinaren araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailako –oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila– curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira. Aipatu dekretuaren hitzaurrean honako hau ere ezartzen da: ikasleek lortutako hizkuntzen gaitasun-maila ziurtagiri egokien bitartez egiaztatuko da; eta ziurtagiriak erdiesteko, beharrezkoa izango da ebaluazio-sistema objektibo eta fidagarri bat, hartarako araututako proba espezifikoak erabili, hain justu ere instantzia autonomikoen, estatalekin eta europarrek homologa ditzaketenak.

Agindu honen bitartez, mailei dagokienez sarrera–, promozio-eta jarraipen-baldintzak arautzen dira, eta bai ebaluazio-prozesua, maila-probak eta egiaztapena ere. Irakasleak metodologikoki orientatzeko neurriak proposatzen dira, eta ikasleek konpetentziak eskuratzearen segimendua egitea errazten zaie irakasleei. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez curriculumera sarbidea izateko neurriak zehazten dira.

Kalifikazioen aurkako erreklamazio-sistema agindu honetan zehazten da, hain justu ere ebaluazio objektiborako berme handien alde egiteko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxetako ikasleen betekizun eta eskubideei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriaz.

Azkenik, zenbait eranskinetan, ebaluazioa egiteko beharrezko dokumentuak jasotzen dira: espediente akademikoa eta ebaluazio-aktak.

Hortaz, honako dekretu honetan aurreikusitakoarekin bat etorriaz: 46/2009, otsailaren 24koa, zeinaren bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailako— oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua

eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira; eta aipatu ikasketei dagokienez sarrera, ebaluazioa eta egiaztapena arautzeko, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta aplikazio-eremua.

Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean aplikatuko da, eta honako helburua du: hizkuntza eskola ofizialetan ematen diren erregimen bereziko ikasketetako eta beste kurtso batzuetako irakasleen ebaluazio eta egiaztapenak arautzea, betiere otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuan aurreikusitako garatuaz, izan ere, dekretu horren bitartez: araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako– oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.

2. artikulua.– Ikasleen jarraipena eta promozioa.

1.– Kurtsoaz promozionatu edo gora egiteko beharrezkoa izango da helburu hauek erdiestea: aurreko kurtsoarako ezarritakoak, betiere tokatzen den curriculumean zehaztutakoarekin bat etorriaz. Azken buruko Ez gai kalifikazioa duten ikasleek kurtsoa errepikatu egin beharko dute, eta horrek trebetasun guztien beste ebaluazio bat eta kalifikazio bat dakartza.

2.– Aurrez aurreko modalitateko ikasleak ezin izango dira matrikulako kurtso berean birritan baino gehiagotan. Salbuespen gisa, irakasle egokiak proposaturik eta ikasleak hala eskaturik, zuzendariak baimendu egin dezake hirugarrenez matrikulatzea, oinarrizko mailarako muga lau urtekoa delarik; seikoa, bitarteko mailetarako eta maila aurreratueterako; eta hirukoa, gaitasun mailarako.

3. artikulua.– Maila zehazteko proba.

1.– Hizkuntza eskola ofizialek berritan onartzen diren ikasleei erraztu egingo die maila zehazteko probak egitea, zertarako-eta egiaztatutako ezagutzeekin bat datorren ikasketa-maila egokian kokatu ahal daitezen. Maila zehazteko proba hau, tokatzen den hizkuntza eskola ofizialaren arabera, honako izan daiteke: autoebaluazio-proba, idatzizko ariketak bat, edo zentroak berak deitutako elkarriketa bat, zentroaren instalazioetan.

2.– Ikasleak kurtso eta maila egokira sartzeko bakarrik izango dira baliozkoak emaitzak. Maila zehazteko probak ez du ekarriko aurreko kurtsoak gainditu izana aitortzea, ez eta inolako ziurtagirik lortzea ere.

Irakasleek egindako zuzeneko behaketetan oinarriturik eta bai gelan ikasleak erakutsitako gaitasunean ere, hizkuntza eskolako ofizialeko sail egokiak birkokatu egin dezake ikaslea goragoko edo behegoko kurtso baten, hutsik diren plazen arabera.

3.– Sail didaktikoek prestatuko dituzte mailak zehazteko probak, eta honako hauek izango dituzte erreferentziatzat: hizkuntza bakoitzaren maila eta kurtsoarako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak, guztiak ere aipatu ikasketetako curriculumetan ezarritakoak.

4.– Hizkuntza eskola ofizialetako maila-proba egin aurretik, ikasleen eskuetan aski jarriko da beharrezko informazioa (prestakuntza-ibilbidea, ziurtagirien deskribapena, programazioak); hala, bere gaitasun eta posibilitateei gehien egokitzen zaien kurtsoa identifikatzeko

4. artikulua.– Egiaptapen-proba. Ezaugarri orokorrak.

1.– Maila bakoitzeko azken kurtsoa amaitzean ikasle orok egiaptapen-proba bat egingo du, zeina gainditzeak batetik, baitakar mailako eskakizun akademikoak gainditzea, eta, bestetik, maila oinarrizko, bitarteko eta aurreratuaren eta gaitasun-mailaren ziurtagiri ofizial egokia izateko eskubidea.

2.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, maila oinarrizko, bitarteko eta aurreraturi eta gaitasun mailari dagokienez, ziurtagiri egokiak lortzeko probarako deialdi bat egingo du urtero, gutxienez; eta hori bai erregimen ofizialetik matrikulatutako ikasleentzako eta bai erregimen libretik matrikulatutako ikasleentzat ere.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz eskola ofizial guztietan berdinak izango dira egiaptapen-probak, bai erregimen ofizialetik matrikulatutako ikasleentzako eta bai erregimen libretik matrikulatutako ikasleentzat ere, eta hori hizkuntza guztiei dagokienez; zertarako-eta ikasleentzako objektibotasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

4.– Ezarritako estandarren arabera prestatu eta ebaluatuko dira probak, halako moldez non proben baliozkotasuna, fidagarritasuna, ekitatea eta eragin positiboa bermatzen diren.

5.– Egiaptapen-probei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasleentzako informazio-agiri bat prestatuko du, non honako hauek zehaztuko baitira: parteak, iraupena, puntuazioa, deialdia eta proben egutegia.

6.– Hizkuntzen Portfolio Europarra erabiltzeko, Europako Kontseiluaren gomendioak jarraitzearen, ziurtagiri ofiziala lortzeko probak ezagutzei buruzkoak izango dira, eta hizkuntzaren erabilerari dagokionez azterketari bakoitzaren kompetentzia-maila neurtzeko trebetasunka diseinatuko dira; eta hala posible izango da, batetik, maila-ziurtagiriak ematea, eta, bestetik, maila egiaptatzen ez duen ikasleei ematea –trebetasunka– egiaptapen akademikoa, baldin eta eurek hala eskatzen badute.

7.– Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuan zehaztu helburu orokor eta espezifikokoak izango dira erreferente, trebetasun bakoitzari doakion kompetentzia-mailarako. (Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua, zeinaren bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako– oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculum ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira).

8.– Komunikazio-kompetentziaren maila honelaxe zehaztuko da: ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko ezagutzak, trebetasunak eta baliabideak nola erabiltzen dituen balioetsiaz, eta, halaber, maila bakoitzeko zailtasundun komunikazio-egoeretan idatziz eta ahoz espresatzeari dagokionez.

5. artikulua.– Maila egiaptatzeko probaren egitura eta kalifikazioa.

1.– Egiaptapen-probak, maila guztietan, bi parte independente izango ditu. Idatzizkoaren ulermenari, ahozkoaren ulermenari eta idatzizkoaren espresioari dagozkien trebetasunak neurtuko ditu lehen parteak. Bigarren parteak, ahozkoaren espresioari dagozkion trebetasunak neurtuko ditu.

2.– Idatzizkoaren ulermenak zenbait ariketa izango ditu, zenbait eratako testuetan oinarriturikoak. Ariketak zenbait eratakoak izan daitezke; esate baterako: aukera anitzeko galderak, erantzun laburra, etab. Ariketa horiek honako hauek ebaluatuko dituzte: testuak globalki ulertzea, ulermen zehatza edo intentsiboa edota ulermen selektiboa.

3.– Audio edo bideo euskarrian, zenbait ahozko testu erreal edo sinesgarri entzutean oinarriturik, ariketak eginez neurtuko da ahozkoaren ulermena; aipatu testuon jatorria hauetakoaren bat izan

daiteke: irratia, telebista, komertzialak diren edo ez diren grabazioak, etab. Ariketak zenbait eratakoak izango dira, eta eurretan ahozko testuak globalki ulertzea, ulermen zehatza edo intentsiboa edota ulermen selektiboa neurtuko dira.

4.– Idatzizko espresiorako zenbait ariketa izango dira. Ariketak egin behar dituztenek honako hauek egin beharko dituzte: testuinguruan kokaturik, espresiozko edo elkarreraginezko egoera erreal edo sinesgarriak proposatzen dituzten testuak –zenbait era eta luzaeratakoak– osatu edo zuzendu.

5.– Ahozko adierazpenaren probak gutxienez bi ariketa izango ditu, eta eurretan proposatuko dira: beste pertsona batzuekiko elkarreraginezko edo adierazpenezko egoera erreal edo sinesgarriak.

6.– Egiaztapen-probak honako hauek aplikatuko eta ebaluatuko dituzte: hizkuntza ofizialetako sail didaktikoetako irakasleek, eta horiek, halaber, aztertzaile izango dira, agindu honetan aurreikusitakoarekin bat etorriaz.

7.– Mailak egiaztatzeko proben emaitzak zehaztapen hauekin adieraziko dira «Gai» edo «Ez gai» Orobat, trebetasun bakoitzari buruzko kalifikazioak «Gai» eta «Ez gai» zehaztapenekin adieraziko dira.

Trebetasunetako bakoitzean eta denetan Gai kalifikazio partziala lortu bada, ebaluazioaren azken buruko emaitza Gai izango da. Trebetasunetako baten batean edo guztietan Ez gai kalifikazioa lortu bada, ebaluazioaren azken buruko emaitza Ez gai izango da. Trebetasunetariko baten batean ariketa egin ez bada «Ez aurkeztua» jasoko da dagokion lekuan, eta «Ez gai», azken buruko kalifikazioan.

8.– Kalifikazio-probak egin, baina ez badute lortzen mila oinarrizkoa, bitarteko, aurreratua, gaitasun maila, gainditutako trebetasunei buruzko egiaztapen akademikoa eskatu ahal izango dute ikasleek.

9.– Kurtso akademiko baten trebetasun baten gai kalifikazioa lortu izana egiaztatzeak ez dakar hurrengo kurtso akademikoetan kalifikazio hura errekonozitzea. Kurtso akademiko berean lau trebetasunak gainditu dituen izangaiari emango zaio maila-ziurtagiria.

6. artikulua.– Konpetentziak hobetzeko kurtso espezializatuei buruzko ziurtagiria.

1.– Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuko 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hizkuntza eskola ofizialek –hizkuntzetan konpetentziak hobetzeko– honako kurtso espezializatu hauek antolatu, eman eta egiaztatu ahal izango dituzte: maila oinarrizko, bitarteko eta aurreratua, eta bai Hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru bateratuko C1 eta C2 mailak, betiere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren alde aurretiko baimena izanez gero (Otsailaren 24ko 46/2009 Dektetua, zeinaren bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako- oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira).

2.– Trebetasun bat edo batzuk garatzeko izango dira kurtso horiek, eta bai profil profesional jakin baten komunikazio-trebetasunak garatzeko ere; hizkuntza eskola ofizialek finkatuko dute ebaluazio-prozesu egokia, kurtsoaren ezaugarri eta helburuen arabera. Hala, kurtsoak ematen dituzten sailek haien programazio didaktikoak prestatuko dituzte, barne direlarik bai ebaluazio-irizpideak eta bai trebetasunen kalifikazioa ere.

3.– Ebaluazio-prozedura eta -lanabesen bitartez ziurtatu egin beharko da ezen, tokatzen diren trebetasunak eta kurtsoa egiaztatzeko, beharreko maila lortzen dela.

4.– Zentroko zuzendariak emanen du delako kurtsoaren ziurtagiria, eta bertan honako hauek jasoko dira: zentroaren izena, ikaslearen izena eta NIAN edo AIZ, kurtsoaren izena, noiztik nora egin den, zenbat ordu iraun duen, eta lortutako kalifikazioak.

7. artikulua.– Aurrez aurreko modalitateko ikasleen ebaluazioa.

1.– Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuan zehaztu helburu, kompetentzia eta ebaluazio-irizpideekin bat etorriaz, irakasleek egingo dute ikasleen kompetentziei buruzko ebaluazioa. (Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaz, Euskal Autonomia Erkidegorako, maila oinarrizko, tarteko, aurreratua eta gaitasun mailaren curriculumuma ezartzen da).

2.– Sail bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriaz, kurtsoan zehar, irakasleek ikaslearen aurrerakuntzen gaineko ebaluazioa egingo dute, eta horrekin ahalbidetuko da: batetik, ikaskuntza-prozesua egiaztatzea eta irakaskuntzako planifikazioa eta antolakuntza egitea; eta, bestetik, errefortzu-ekintza beharrezkoak aplikatu ahal izatea, eta, azkenik, –eurentzako ikasketa-modurako estrategia egokienei eta autoebaluazio aukerei dagokienez– ikasleei aholkuak eman ahal izatea.

3.– Zentroko proiektuan, ikasketa– eta ikaskuntza-prozesuen gaineko segimenduari buruzko plan bat jasoko da, eta bertan jasotzen diren orientazioak programazio didaktikoetara sartu beharko dira. Proiektu horretan, zehaztu egin beharko da noiz helaraziko zaien ikasleei euren ikaskuntza-progresioari buruzko informazioa.

4.– Ez-bertaratze portzentaje batetik aurrera ikasleak galdu egingo du bai progresioa ebaluatzeko eskubide eta bai klasera joatekoa ere, eta hori jaso egin beharko da zentroaren proiektuan. Hala ere, promozioaren ondorioei dagokienez, ebaluatua izateko eskubidea, ikaslearena, bermatuko egingo da kurtsoko azken buruko proba baten bitartez.

5.– Aurrez aurreko modalitateko ikasleak honako une hauetan ebaluatuko dira: tokatzen den maila egiaztatzeko ez diren kurtsoetariko bakoitza amaitzean. Kurtsoaz promozionatzeko, Gai kalifikazioa eskatuko da. Kalifikazio hori honako hauek batuaz lortuko da: batetik, kurtso bereko ikasleentzako komuna den proban lortutako kalifikazioa, azken buruzko kalifikazioaren % 60 dena; eta, bestetik, sail bakoitzak ezarritako helburu objektiboetan oinarriturik, ikasleen kompetentzien gaineko etengabeko ebaluazioa. Helburu horiek honako hauen arabera dira: curriculumetan ezarritako ebaluazio-irizpideak eta edukiak, zehazki, programazio didaktikoetan zehaztutakoak; kalifikazioaren bigarren parte hori azken burukoaren % 40koa izango da.

6.– Aurrez aurreko ikasleen maila egiaztatzeko ez diren kurtsoen azken buruko ebaluazioaren emaitzak, «Gai» edo «E gai» zehaztapenekin adieraziko da, eta ikaslearen espediente akademikoan eta kalifikazio-aktan sartuko dira. Orobat, trebetasun bakoitzari buruzko kalifikazioak «Gai» eta «Ez gai» zehaztapenekin adieraziko dira.

Trebetasunetako bakoitzean eta denetan Gai kalifikazio partziala lortu bada, ebaluazioaren azken buruko emaitza Gai izango da. Trebetasunetako baten edo guztietan Ez gai kalifikazioa lortu bada, ebaluazioaren azken buruko emaitza Ez gai izango da. Trebetasunetariko baten batean ariketa egin ez bada «Ez aurkeztua» jasoko da dagokion lekuan, eta «Ez gai», azken buruko kalifikazioan.

8. artikulua.– Ebaluazioko emaitzei buruzko erreklamazioa.

1.–Ikasleek eta, adingabeko ikasleei dagokienez, gurasoek edo legezko ordezkariak honako hauek ikusteko aukera izanen dute: errendimenduaren ebaluazioari eragingo dioten probak eta ariketak, betiere zuzendutakoan; horretaz, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta bai ariketa eta proba haiek berrartetzeko eskatu ere. Zuzenketa ez da mugatuko kalifikazio kopuruzko

edo kualitatiboak adieraztera, ezpada egindako falta zein hutsak edo kalifikazioaren arrazoizko esplikazioa jaso beharko dira.

2.– Zentroaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Araudian, ezari egin beharko da erreklamazio-prozedura, eta, hartarako, berrateritza egiteko epeak eta baldintzak –irakasleentzat lotesle direnak– seinalatuko dira; betiere, kontuan izanik honako hauek: curriculum ofiziala, zentroaren curriculum proiektua, programazioak eta argitara emandako kalifikazio-irizpideak. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan xedatutako betiere errespetatuaz, zentroek egoki egin beharko dituzte erreklamazio-prozedurak (201/2008 Dekretua: Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxetako ikasleen betekizun eta eskubideei buruzkoa).

3.– Ikasleek probak kurtsoko edozein unetan ikusi ahal ditzaten, irakasleek zentroan gorde beharko dituzte, kurtso amaiera arte. Azken buruzko probak zentroan gorde beharko dira, non urte batez egon beharko duten.

9. artikulua.– Erreklamazioak zentroko instantzien aurrean.

Zentroko instantzien aurrean erreklamazioak egiteko prozedura, Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Araudian xedatutakoari egokituko zaio.

Subsidiarioki honako arau hauek aplikatuko dira:

1.– Edozein kalifikazio (partziala zein azken burukoa) publiko egin eta jakitera eman ostean, ikasleek 48 orduko epea izango dute delako kalifikazioaren gaineko erreklamazioak aurkezteko.

2.– Kalifikazio partzial baten aurkako edozein erreklamazio tartean den irakasleari aurkeztu beharko zaio, zeinak 48 orduko epearen barruan erantzungo duen.

3.– Azken buruzko kalifikazioei buruzko erreklamazioak, ikasle ofizialek zein libretikoek idatziz aurkeztu beharko dituzte, zentroko artezkariari zuzenduta.

4.– Zuzendariak delako hizkuntzari dagokion sailari aurkeztuko dio erreklamazioa, eta sail horrek hura eztabaidatu eta txosten arrazoitu bat eman beharko du. Txosten horrek honako hauei buruzkoak jaso beharko ditu: probak ea programatutako edukiei erantzuten dien, ea materiaren helbururi erantzuten dien, eta ea ezarritako ebaluazio-irizpideei (sailak argitara emandakoei) erantzuten dien.

Aipatu erreklamazioa baiesten bada, saileko nagusiak zentroko zuzendariari bidezko ebazpena proposatuko dio; eta kalifikazio berria aktetan eta gainerako dokumentuetan jaso beharko da, arauzko prozeduraren bidez.

10. artikulua.– Erreklamazioak zentroaz kanpoko instantzien aurrean.

Kurtsoetako azken buruzko kalifikazioei eta mailako egiaztapen-probei dagokienez, ikaslea matrikulatuta dagoen zentroaren barruko erreklamazio-prozesua bukatu ostean aurkeztu ahal izango da erreklamazioa. Honelaxe jokatu beharko da:

1.– Emandako ebazpenarekin ikaslea ez badago ados, Ikuskaritzako Lurralde Burutzan idatziz aurkez dezake alegazioa, 48 orduko epearen barruan. Zirkunstantzia hori zentroko zuzendariari jakinarazi beharko zaio, eta honek ondokoak igorriko dizkio Ikuskaritzari: erreklamazioaren helburu diren ariketa originalak, programazioa jasotzen duen dokumentazioa (sailarena), eskatutako maila eta ebaluazio-irizpideak, eta zentroko instantzietan erreklamazioak egin duen prozesuari doakion dokumentazioa.

2.– Hezkuntzako Ikuskaritzak, aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta hartarako, ikusi egingo du ea egokitzen zaien dagokion sailak aldez aurretik finkatu ebaluazio-irizpideei eta programazioko edukiei; eta ondorioz:

a) Seinalatutako baldintzak betetzen badira, Ikuskaritzak erreklamazioa ezestea proposatuko du.

b) Erreklamazioaren gai den ariketa ez bada egokitzen aldez aurretik finkatutako programazioko edukiei, dagokion sailari edo batzorde ebaluatzaileari zera proposatuko die Ikuskaritzak: beste proba bat prestatu, burutu eta ebaluatu dezala, eta prozesua gainbegira dezala.

c) Erreklamazioaren gai den ariketa programazioko edukiei erantzuten badie, baina esleitutako kalifikazioa ez bazaie egokitzen Sailak aldez aurretik finkatutako ebaluazio-irizpideei, Ikuskaritzak aipatu kalifikazioa aldatzea proposa dezake, berak egoki uste duen eran.

Kasu guztietan ere, Erreklamazioa ebazteko proposamena egiteko ardura duen ikuskariak proposamen horrekin batera txosten arrazoitua ere emango du; eta hartarako, aholkularitza jaso ahal izango du, hain justu ere erreklamatutako materia irakastea esleituta duten espezialitateko irakasleena. Arrazoitutako txostena eta proposamena Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari igorriko zaizkio, zertarako-eta, ebazpena eman dezan, Hezkuntzako Ikuskaritzaren aurrean erreklamazioa aurkeztu zenetik harako 7 eguneko epearen barruan.

11. artikulua.– Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

Erregimen bereziko hizkuntza-ikasketetako ebaluazio-dokumentu ofizialak honakoak dira: espediente akademikoa eta kalifikazio-aktak. Eskolako zuzendariak ikus-onetsiko ditu, eta dagokien pertsonen sinadurak izango ditu. Zentroko idazkaritzan artxibatuko dira, eta idazkariaren ardura izango da, bai haiek zaintzea eta bai eskatzen diren ziurtagiriak egitea ere.

12. artikulua.– Kalifikazio-akta.

1.– Kalifikazio-aktak dokumentu ofizialak dira, zehazki, erregimen bereziko hizkuntza-ikasketetako kurtso bakoitzeko amaieran ematen direnak. Ikasleek lortutako kalifikazioak jasotzen dira euretan.

2.– Aktetan honako hauek jasotzen dira: ikasleen izenen zerrenda, maila eta kurtsoa, ikasketa-erregimena eta hizkuntzetan kompetentziak hobetzeko kurtso espezializatuen iraupena, urte akademikoa eta ikasleek lortutako kalifikazioak.

3.– Erregimen bereziko hizkuntza-ikasketeten mailetako azken buruko kurtsoen aktetan, egiaztapen-proba gaindituz gero, ziurtagiria emateko proposamena jasoko da.

4.– Agindu honetako I. eranskinean zehazten diren ereduari eta ezaugarriei egokitu zaizkie kalifikazio-aktak.

5.– Ikasleak ebaluatzekeo ardura duten irakasleek sinatuko dituzten aktak eta bai saileko nagusiak ere. Kasu guztietan ere, zentroko zuzendariaren oniritzia jasoko da.

6.– Akta aldatzea beharrezkoa den kasuetan, delako aldakuntzaren berri ematen duen diligentzia bat emanen da, zeina zentro idazkariak sinatu beharko duen.

13. artikulua.– Espediente akademikoa.

– Ikaslearen espediente akademikoa hauxe da: hizkuntza eskola ezberdinetan batetik bestera joatea bermatzen duen oinarritzko dokumentua. Eta bertan honako hauek jaso dira: eskola

identifikatzeko datuak, ikaslearen datu pertsonalak, matrikularen datuak, lortutako kalifikazioak, mailetako ziurtagiriak emateko proposamena, eta ikaslearen ibilbide akademikoari eragiten dion dokumentazio oro.

– Horietaz gain, honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du espediente akademikoak: ikasleak kurtso eta mailetara sarrera izatea, ezarritako deialdi kopurua gainditzea, lekualdatzeak, modalitate edo erregimen aldaketak, eta otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuan ezarritako kurtso eta mailen egitura (Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua, zeinaren bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailtako– oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculumaz ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira).

3.– Espediente akademikoaren oinarrizko diseinua agindu honetako II. eranskinean jasotako ereduari egokitu zaio. Matrikula egiterakoan, ikasleak ikasiko duen hizkuntza bakoitzeko espediente pertsonal bat irekiko da.

4.– Euren espediente akademikoan jasotako datuei buruzko ziurtagiria eskatu ahal izango dute ikasleek, zeina idazkariak sinatuko duen, zuzendariaren oniritziarekin.

14. artikulua.– Ziurtagiriak. Maila-ziurtagirien izenak.

Agindu honetan erregulatzen diren egiaztapen-probak bideratuk dira erregimen bereziko hizkuntza-ikasketetako ziurtagiri ofizialak lortzeara, eta honako izenak izango dituzte: (A2), Oinarrizko mailaren ziurtagiria, (B1) Tarteko mailaren ziurtagiria, (B2) Maila aurreratuaren ziurtagiria eta (C1) Gaitasun mailaren ziurtagiria.

15. artikulua.– Maila-ziurtagiriak eskatu, eman eta erregistratzea.

1.– Ikasketak egin dituzten edo egiaztapen-probak egin dituzten eskola ofizialean, ikasleek delako maila-ziurtagiria eska dezakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei buruzko Legean aurreikusitako tasa ordainduko dute.

2.– Maila oinarrizko, tarteko eta aurreratuaren eta gaitasun mailaren ziurtagiriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emanen ditu, betiere hizkuntza eskola ofizialak proposaturik, eta agindu honetako III. eranskinean jasotako ereduarekin bat etorriaz; izan ere, bertan jaso egiten baitira abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan aipatu datu minimoak, barne delarik Europako erreferentzia-esparru bateratuari buruzko erreferentzia. Ereduari, espezifikazio teknikoari, materialei eta segurtasun-neurri minimoari dagokienez, abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretuan xedatutakoa errespetatu beharko da (1850/2009 Errege Dekretua: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege organikoaren bitartez ezarritako ikasketari dagozkien titulu akademikoak eta profesionalak emateari buruzkoa)

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko Titulu Akademikoen Erregistroan eta Hezkuntza Ministerioko Tituluen Erregistro Zentralean inskribatuko dira ziurtagiriak.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Iraungitako planeko espediente akademikoa.

Hizkuntzen ikasketa espezializatu eta lehen mailari dagozkien ikasketak ordenatzeri buruzkoa da irailaren 2ko 967/1988 Errege Dekretua. Bada, dekretu horrek araututako erregimen bereziko hizkuntza-ikasketak bukatu ez dituzten ikasleek espediente akademikoak itxi egingo dituzte hizkuntza eskola ofizialek, baldin eta otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaz araututako ikasketetara sartzen badira, eginbide egokiaren bitartez; egoera berri horretan espediente bat irekiko zaie, non aurreko espedienteetako informazioa jasoko den.

2012ko ekainaren 11, astelehena

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 15a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

2012ko ekainaren 11, astelehena

I. ERANSKINA
KALIFIKAZIO AKTA

ERREGIMEN BEREZIKO HIZKUNTZA IKSKETAK

ABENDUAREN 24KO ERREGE DEKRETUA (2007KO URTARRILAREN 4KO BOE)
OTSAILAREN 24KO 46/2009 DEKRETUA (2009KO MARTXOAREN 12KO BOE)

Zentroaren izena: _____

Kurtso akademikoa	Hizkuntza	Maila	Kurtsoa	Taldea
Kodea	Zentroa			
Helbidea			Herria	
Erregimena:	Orduak	Deialdia:		

		Kurtsoko azken buruko kalifikazioaren akta _____ mailakoa _____ hizkuntzarena						
Iz.	Izen-abizenak	Nan/aiz	Trebetasunen araberako kalifikazioa			Egiaztageria Proposamena		
			Idatzizkoaren ulermena	Ahozkoaren ulermena	Idatzizko adierazmena		Ahozko adierazmena	
						Gai	Ez gai	

2012ko ekainaren 11, astelehena

Oharrak:

_____n/ean (herria) _____ko/eko _____aren _____an/ean

OI. Zuzendaria
Izp.: Izen-abizenak

Eskolaren zigitua

Saileko nagusia	Irakaslea
Izp.: Izen-abizenak	Izp.: Izen-abizenak

Akta honek ___ orri ditu eta ordena-zenbakitik harako ikasleak hartzen ditu, “ (Ikaslearen izen-abizenak) ___ zehazki, ___ ordena-zenbakira arte, ” (Ikaslearen izen-abizenak) ___ ”

*Gai Ez gai, Kalifikatu gabea, Ez aurkeztua Ikaslearen ebaluazio-data aski ez badaude, dagokion trebetasunean kalifikaziotzat jaso bedi Ez kalifikatua eta **EZ GAI** azken buruko kalifikazioan Trebetasun guztietan Ez kalifikatu gisa agertzen bada, jaso **EZ GAI** azken buruko kalifikazioan

* Ziurtagiri egokia inskribatuko da: (A2) Oinarrizkoa, (B1) Bitartekoa, (B2) Aurreratua eta (C1) Gaitasunarena.

2012ko ekainaren 11, astelehena

II. ERANSKINA
 ESPEDIENTE AKADEMIKOA
 ERREGIMEN BEREZIKO HIZKUNTZA IKASKETAK

ABENDUAREN 24KO ERREGE DEKRETUA (2007KO URTARRILAREN 4KO BOE)
 OTSAILAREN 24KO 46/2009 DEKRETUA (2009KO MARTXOAREN 12KO BOE)

Zentroa	Zentroaren kodea
Helbidea	Herria

LEHEN MATRIKULAREN FITXA

IKASLEAREN DATUAK	
Abizenak	Izena
Jaioteguna	Herria
Herriladea	Nazionalitatea
Telefonoa	E-maila: NAN/AIZ

EGINDAKO KURTSOAK

Kurtso akademikoa	HEO	Hizkuntza	Maila	Kurtsoa	Orduak	Ikasketa modalitatea	Kalifikazioa

Oharrak:

2012ko ekainaren 11, astelehena

III. ERANSKINA / ANEXO III

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUAK
LA CONSEJERA DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Indarrean dauden legeetan aurreikusitako xedapen eta baldintzekin bat etorritz, kontuan izanik

Considerando que, conforme a las disposiciones y circunstancias prevenidas por la legislación vigente

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, XXXX

xxxx.(e)ko xxxxxxxx xx(e)an xxxxxxx (xxxxxxx)n jaiok, nazionalitatez xxxxxxxra, xxxxx identifikazio zenbakidunak, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan (urtarrilaren 4ko BOE) eta otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuan (martxoaren 12ko EHAA) araututako ikasketak gainditu dituela, XXXXXX XXX, XXXXko XXXXXX, honako hau ematen dio:

nacido(a) el día XX de XXXXXXX de XXXX en XXXXXX (XXXXXXXX), de nacionalidad XXXXXXX, con número de identificación XXXXXXX ha superado los estudios regulados en el Real Decreto 1629/2006 de 29 de diciembre (BOE 4 de enero) y desarrollado en el Decreto 46/2009 de 24 de febrero (BOPV 12 de marzo), en la XXX de XXXXXX, en XXXX de XXXX, expide el presente

XXXXXXXXXX XXXXXX XXXXXXXXXXX ZIURTAGIRIA (YY)

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuetako YY Mailarekin parekatzen dena, izaera ofizialekoa, eta balio berekoa da ziurtagiria Espainako lurralde osoan, eta indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eskubide guztiez balia daiteke jabea

CERTIFICADO DE XXXXX XXXXXXXXXXXX XX XX (YY)

Que corresponde al nivel YY del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, con carácter oficial y validez en todo el territorio español que le faculta para ejercer los derechos que a este certificado otorgan las disposiciones vigentes

XXXXXXXXXXXX, XXXXko XXXXXXXXX XXan
XXXXXXXXXXXX, XX de XXXXXX de XXXX

Interesatua

El/ la interesado/a

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación

El/la director/ a de Innovación Educativa

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaria

Tituloen Erregistro Autonomikoa / Registro Autonómico de Títulos: XXXXXXXXXXXXXXX

Tituloen Errolda Nagusia / Registro Central de Títulos: XXXXXXXXXXXXXXX